

FAROE UHARTEAK. Zortzi diputatu lituzkete errepublikano zein unionistek; zazpi Herri Alderdiak eta sozialdemokratek

Burujabetzaren aldeko eta aurkakoen berdinketa iragartzen dute inkestek

Gaurko Legebiltzarrerako bozen ostean, zentroko alderdien babesa erabakigarria izan liteke

Edu Lopez de Luzuriaga |

Gaur egingo diren Faroe Uhar-teetako Legebiltzarrerako hau-teskundeetan zer gertatuko den zail da aurretik jakitea. Azken sondaketen arabera berdinketa egoera dago uharteen buruja-betzaren alde eta kontra dau-den alderdien artean, eta go-bernu autonomiko berriaren osaketa tarte txikiz erabakiko da. Alderdi Errepublikanoak eta Alderdi Unionistak zortzina di-putatu izatea aurreikusten dute inkestek; zazpina sozialdemo-kratek eta Herri Alderdiak; eta bana autonomistek zein zen-tristek.

Egoera honetan, Faroeetako gobernu berriaren kolorearen erabakia espektro politikoaren zentroan kokatutako bi alderdi txikien eskuetan gera daiteke, Alderdi Autonomista eta Zen-troko Alderdiaren eskuetan.

Alderdi Autonomista koalizio gobernuak kidea izan da azken lau urteotan Alderdi Errepubli-kano eta Herri Alderdiarekin batera, eta, hasiera batean, koa-lizioa mantentzea da helburu. Hala ere, Eydun Elttor alderdi-buruak ate guztiak irekita utzi ditu, eta ez du baztertzeko oposi-zioko Alderdi Unionista edota Alderdi Sozialdemokratarekin elkarlanean aritzeko aukera.

Zentroko Alderdiak gora egin du boto-asmoetan eta Legebil-tzar berriaren giltzarria izan dai-teke inkestek ematen dioten parlamentario kopuruarekin. Alderdiak ez du bere jarrera agertu Faroeetako burujabetza-ren inguruan. Kanpainan zehar,



EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Faroe Uhar-teetako Tinganes hiria. Faroetarrek uharteen geroa erabakitze-ko aukera izan dezakete gaur.

herritarren eguneroko bizi-bal-dintzak hobetzearen aldeko apustua egin du alderdi zentris-tak, eta subiranotasuna biga-rren mailako arazotzat hartu. Bere jarrera azaldu ezean, gai-nerako alderdiek beren ingu-ruetara erakarri nahiko dituzte zentristak.

Koalizio aukera anitz

Hauteskundeetako garailea izan daitekeen Alderdi Errepu-blikanoak uharteen indepen-dentzia du helburutzat eta, ho-rretarako, orain arteko koalizio gobernuaren jarraipena ezin-bestekotzat jotzen du: «Baina oraindik hobe litzateke koali-

zioa handitzea», esan du Hogni Hoydal lehendakariordeak, Alderdi Sozialdemokratari eta, batez ere, Zentroko Alderdiari zuzendutako adierazpenetan.

Ez dirudi Alderdi Sozialde-mokratak errepublikanoen gonbita onartuko duenik. «Au-tonomiaren egoeraz hitz egite-ko prest gaude, baina betiere erresuma barruan gelditzeko xedearekin. Gure alderdiak ez du parte hartuko burujabetza helburutzat duen gobernu ba-tean», esan du Joannes Eides-gaard lehendakari gai sozialde-mokratak. Alderdi Sozialde-mokratak poz handiz ikusiko luke Alderdi Unionistarekin eta

KOALIZIOA

Herri Alderdiak eta autonomistek ez dute aliantzarik baztertzeko; sozialdemokratekin nahi dute osatu unionistek

Herri Alderdiarekin batera koa-lizio gobernu osatzea.

Anfinn Kallsberg lehendaka-riaren Herri Alderdia kolokan aurkitzen da. Sondaketa baiko-rrenek aurreko hauteskundeetakoak baino %1,5 boto gutxia-go ematen dizkiote eta, hala



Eremua. 1.399 km²

Populazioa. 44.500 biztanle

Hiriburua. Torshavn (15.000 biz.)

Uharterik handiena. Streymoy (373,5 km²)

Hizkuntza. Daniera eta faroera. Telebista propioa du faroeraz.

J. APEZTEGIA

gertatuz gero, arriskuan egon daiteke koalizio gobernuaren jarraipena. Gauzak horrela, Kallsberg lehendakariak adis-kidetsuki hitz egin die oposi-zioko alderdiei: «Nik ez dut alde-z aurretik inolako alderdirik baztertzeko. Faroe Uhar-teetako politikan bi ardatz daude: aber-tzaletasuna eta eskuin-ezke-rreko ideologiak; beraz aukera bikoitza dago. Burujabetzaren inguruan argi utzi dugu gure ja-rerra martxan jarri dugun subi-ranotasun planarekin, baina prozesuak aurrera jarraitu ahal izateko gehiengo parlamenta-rioa lortu behar dugu».

Alderdi Unionistak boto ugari irabaziko ditu hauteson-tzietan Danimarkaren barruan gelditzeko diskurtsoarekin, in-kestek diotenez. Lisbeth L. Pe-tersen lehendakari gaiak Alder-di Sozialdemokratarekin osatu nahi du koalizio gobernu bi al-derdien arteko desadostasun ideologikoak alde batera utzi-ta. «Aurreko gobernuaren su-biranotasun plana gelditzeak du orain lehentasuna», aitortu du Petersenek.

HAUTAGIAK



ANFINN KALLSBERG
(Herri Alderdia)

1947an jaio zen Klaksvik hirian eta egun Faroeetako iparraldeko Vidarei-di hirian bizi da.

Merkataritza ikasketak amaituta kon-tabilitatean aritu zen hainbat enpresa-tan, 1980an politikagintzan sartu arte. Legebiltzarreko presidentea eta Arrantza ministroa izan da, besteak beste, eta 1998tik Faroe Uhar-teetako lehendakaria da. Subiranotasun prozesua martxan dagoela baina 2012. urtea baino lehen ez dela burutuko esan du hautagai kontserbadoreak.



HOGNI HOYDAL
(Alderdi Errepublikanoa)

1966an Torshavnen jaio zen. Komunika-zio zientziak ikasi zituen Roskildeko unibertsitate dania-

rrean eta Faroeetako telebistan egin zuen lan 1998an politikagintzan sartu arte. Orduetik Faroeetako lehendakari-ordea da. Gaurko bozak «hil ala biziko-tzat» jo ditu, oposizioa garaile ateraz gero burujabetza urrunduko litzateke-elako. Datorren legealdian konstituzio propioa eratu behar dela dio hautagai ezkertiarak, Danimarkarekiko nego-ziazioan arazo juridikoak gainditzeko.



JOANNES EIDESGAARD
(Alderdi Sozialdemokrata)

1951n jaio zen Faroeen hegoalde-ko Tvoroyri hirian. Irakaslea lanbidez,

1980an zinegotzi hasi zen bere jai-o-terrian eta 1990ean Torshavneko legebiltzarkide bihurtu zen. Danimar-karen barruan jarraitzearen alde dago. «Errepublika- noentzat askatasuna bereizketaren bidez lortutakoa da, baina niretzat askatasuna pertsonala ere bada: ikasteko aukera, segurtasun sentimendua gizartean, e.a», esan du hautagai sozialdemokratak.



LISBETH L. PETERSEN
(Alderdi Unionista)

1939an jaio zen, Torshavnen. Etxekoandre eta Faroeetako Museo Nazionalako idaz-

kari bezala egin du lan. 1980an Alderdi Unionistaren zuzendaritzan sartu zen, eta 1990ean parlamentario bilakatu zen. Danimarkan legebiltzarkidea da Faroeen izenean. «Burujabetzaren galdera erabat baztertu behar dugu», esan du politikari kontserbadoreak kanpainan, «Danimarkako erresumatik kanpo Faroeetako egungo gizartea desagertuko litzateke».